

FESTA HASIERAKO KANOIKADA CAÑONAZO FESTIVO

Eguna: Abuztuak **14** larunbata
Ordua: 19:00

Día: **14** de agosto sábado
Hora: 19:00

Aurten bost izango dira gure gonbidatuak "Artillero" abestia abesten hasiko direnakl Musikalis Abesbatza kideen laguntzarekin.

Este año serán cinco los invitados que acompañados por el Coro Musikalis entonarán el "Artillero":

Borja Cobeaga



Donostia, 1977. Telebistako lana eta film laburren zuzendaritza tartekatuz hasi zuen bere ibilbidea. La primera vez (2001) (Goya saria eskuratzeko hautagaia eta 30 sari baino gehiagoren irabazlea), Éramos pocos (2005) (Oscar saria eskuratzeko hautagaia eta 70 sari baino gehiagoren irabazlea) eta Limoncello (2007) film laburrak zuzendu zituen. 2009an bere lehen film luzea zuzendu zuen, Pagafantas, eta Zuzendaritza Berri Onenaren Goya saria eskuratzeko izendatu zuten. Gaur egun, No controles izenburuko bigarren film luzea prestatzen ari da.

Donostia-San Sebastián, 1977. Comienza su carrera alternando su trabajo en televisión con la realización de los cortometrajes La primera vez (2001) (candidato al Goya y ganador de más de 30 galardones), Éramos pocos (2005) (nominado al Oscar, con más de 70 premios en su haber) y Limoncello (2007). En 2009 dirige su primer largometraje, Pagafantas, por el que es nominado al Goya a la Mejor Dirección Novel. Actualmente prepara su segundo largo, No controles.

Jon Garaño

Donostia, 1974. Kazetaritza eta publizitatea ikasi zuen EHU eta zinemagintza Saroben eta San Diegon (AEB). 2001. urtean Moriarti produkzio-etxea sortu zuen beste lau kiderekin batera. Bertan, zuzendari edo/eta gidoilari gisa lan egin du ikus-entzunezko hainbat proiektutan. Bere film laburrek –On the line (2008), FGM (2008), Asāmara (2008)– 90 sari baino gehiago eskuratu dituzte eta telebistarako egindako dokumentalak –Sahara Marathon (2003), The Dragon House (2005)– hamabost herrialde baino gehiagotan eman dituzte. 2010ean 80 egunean bere lehen fikziozko film luzea zuzendu zuen Jose Mari Goenagarekin batera.

Donostia-San Sebastián, 1974. Estudió periodismo y publicidad en la UPV y cine en Sarobe y en San Diego (EE.UU.). En el año 2001 fundó, junto con otros cuatro compañeros, la productora Moriarti, en la que ha trabajado como director y/o guionista en numerosos proyectos audiovisuales. Sus cortometrajes –On the Line (2008), FGM (2008), Asāmara (2008)– han sido galardonados en más de 90 ocasiones y sus documentales para televisión –Sahara Marathon (2003), The Dragon House (2005)– han sido emitidos en más de una quincena de países. En 2010 codirigió con Jose Mari Goenaga su primer largometraje de ficción, 80 egunean.



Jose Mari Goenaga

Ordizia (Gipuzkoa), 1976. Donostian enpresa-ikasketak egin ondoren, Goenagak zinemagintza ikasi zuen Saroben. 2001ean Moriarti produkzio-etxearen sortzaileetako bat izan zen. Hainbat film labur zuzentzeaz gain –horien artean, sari ugari jaso dituzten Tercero B (2002) eta Sintonía (2005); bien artean ia 140 sari jaso dituzte–, Supertramps (2003) (Animazioko Film Onenaren Goya sarietarako izendatua) animazioko film luzearen eta Lucio (2007) (Donostiako Zinemaldian estreinatua eta 2007ko Film Dokumental Onenaren Goya sarirako izendatua) film luze dokumentalaren idazle eta zuzendarietako bat izan zen. 2010ean Jon Garañorekin batera 80 egunean film luzea zuzendu zuen.



Ordizia (Gipuzkoa), 1976. Tras estudiar empresariales en San Sebastián, Goenaga estudió cine en Sarobe. En 2001 cofundó la productora Moriarti. Además de los cortometrajes que ha dirigido –entre ellos los multipremiados Tercero B (2002) y Sintonía (2005), que juntos suman casi 140 premios–, ha coescrito y codirigido un largometraje de animación, Supertramps (2004) (nominado al Goya a la Mejor Película de Animación), y el largometraje documental Lucio (2007) (estrenado en el Festival de San Sebastián y nominado al Goya a la Mejor Película Documental en 2007). En 2010 codirigió con Jon Garaño el largometraje 80 egunean.

Ione Hernández

Donostia, 1970. Kazetaritzan lizentziatu zen eta Komunikazio-ikasketak egin zituen Michel de Montaigne Unibertsitatean (Frantzia). Bertan, 1994. urtean Los Angelesen (Estatu Batuak) Zuzendaritzako master bat egiteko beka eskuratu zuen. 2001ean Aizea: ciudad del viento film labur dramatikoak zuzendu zuen. Film honek Entzuleen Saria jaso zuen Big Bear Nazioarteko Zinema Jaialdian (Estatu Batuak), Film Labur Latindar Onenaren kategorian. Urtebete geroago La novia (2002) atala filmatu zuen; Diminutos del calvario filmaren zati bat zen. 2006an, Juego, eskizofreniari buruzko film labur dokumentala zuzendu zuen; Julio Medem izan zen ekoizlea. 2007an, Uno por ciento, esquizofrenia film labur dokumentala estreinatua zuen; Medemen ideia batean oinarritzen da filma eta Medem berak ekoitzi zuen. Hurrengo proiektua El palacio de la luna (2008) film laburra izan zen; Ricard Ruiz Garzón idazle katalanaren ipuin batean oinarritzen da.

San Sebastián, 1970. Licenciada en Periodismo, estudió Comunicación en la Universidad Michel de Montaigne (Francia), donde obtuvo una beca para cursar un máster en Dirección en Los Ángeles (Estados Unidos) en el año 1994.

En 2001 dirigió el cortometraje dramático Aizea: ciudad del viento, que recibió el Premio de la Audiencia en la categoría de Mejor Cortometraje Latino del Festival Internacional de Cine de Big Bear (Estados Unidos). Un año más tarde rodó el segmento La novia (2002), perteneciente al filme *Diminutos del calvario*. En 2006 dirige el corto documental sobre la esquizofrenia, Juego, producido por Julio Medem. En 2007 estrena el largometraje documental Uno por ciento, esquizofrenia, basado en una idea de Medem y que también ha producido. Su siguiente proyecto es el corto El palacio de la Luna (2008), basado en un cuento del escritor catalán Ricard Ruiz Garzón.



Pablo Malo

Donostian jaioa, Pablo Malok laurogeita hamarreko hamarkada erdialdean eman zituen lehen urratsak ikus-entzunezko munduan. El ángel de mármol (1996) eta Jardines deshabitados (2000) (berrogeita hamar jaialdi baino gehiagotan parte hartu zuen eta hamahiru sari irabazi zituen) film laburrak zuzendu ondoren, 2004an bere lehen film luzea aurkeztu zuen Donostiako Zinemaldian: Frío sol de invierno (2004). Zuzendari Berri Onenaren Goya saria eskuratu zuen. 2006 urtearen bukaeran, beldurrezko zinemara itzuli zen (aurreko bi film laburrak ere genero horren barruan zeuden) eta La sombra de nadie filma estreinatu zuen.

Nacido en San Sebastián, Pablo Malo comienza a dar sus primeros pasos en el mundo del audiovisual a mediados de los años noventa. Tras dirigir los cortos El ángel de mármol (1996) y Jardines deshabitados (2000) (que participa en más de cincuenta festivales y gana trece premios), en 2004 presenta en el Festival de San Sebastián su primer largometraje, el melodrama Frío sol de invierno (2004), con el que obtiene el Goya al Mejor Director Novel. A finales de 2006 vuelve al cine de terror, en el que se encuadraban sus dos cortos en cine, con el estreno de La sombra de nadie.



FESTA HASIERAKO KANOIKADA CAÑONAZO FESTIVO

ABUZTUA 14 AGOSTO
ORDUA - HORA 19:00

18:00 **ERRITMOAREKIN KANOIKADARA!! / ¡¡ CON RITMO AL CAÑONAZO !!**

🍷 COFRADÍA VASCA DE GASTRONOMÍA

🍷 LOS PASAI

18:25 **ERRITMOAREKIN KANOIKADARA!! / ¡¡ CON RITMO AL CAÑONAZO !!**

🍷 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK / GIGANTES Y CABEZUDOS

🍷 JAMMU

🍷 MAC JEARA'S BAND

🍷 THE JOSELONTXO'S

19:00 **FESTA HASIERAKO KANOIKADA / CAÑONAZO FESTIVO**

🍷 BORJA COBEAGA, JON GARAÑO, JOSE MARI GOENAGA, IONE HERNANDEZ Y PABLO MALO

🍷 CORO MUSIKALIS

🍷 TRINTXERPE MUSIKA BANDA "ILLUMBE"

19:10 **KONTZERTUA / CONCIERTO: GERTRUDIS**

ERRITMOAREKIN KANOIKADARA!! ¡¡CON RITMO AL CAÑONAZO!!

Eguna: Abuztuak **14** larunbata
Ordua: 18:00

Día: **14** de agosto sábado
Hora: 18:00

Gastronomiako Euskal Kofradiako Konpainia bere elkartetik aterako da eta Trinitate plaza, 31 de agosto kalea, San Jeronimo kalea, eta Boulevarda pasa ondoren, Alderdi Ederra iritsiko dira. bere ibilbidean Los Pasai txarangarekin joango dira.

La Compañía de la Cofradía Vasca de Gastronomía efectúa la salida desde su sede para dirigirse por plaza de la Trinidad, 31 de agosto, San Jerónimo, Boulevard y finalizan en Alderdi Eder. Irán acompañados por Los Pasai.



Eguna: Abuztuak **14** larunbata
Ordua: 18:25

Día: **14** de agosto sábado
Hora: 18:25

Goian aipatutako taldeak hiriko erdigune puntu desberdinetik aterako dira eta Alderdi Ederra iritsiko dira.

Jammu ballet folklorikoa, 2008an sortu zen Dakarren eta Ass Ndiayek zuzentzen du. Senegalgo etnia guztietako -Wolof, Bambara, Peul, Toutcouleur, etab...- musikari eta dantzari gazteek parte hartzen dute bertan eta Senegalgo dantza tradizionalenak erakusten dituzte.

Mac Jeara's Band Gipuzkoako taldeak gure kaleetan zehar desfilatuko du. Nueva Orleansko Frantziar Auzotik desfilatzen duten brass bands eta marching bands -en soinuak ekarriko digute.

The Joselontxo's Txaranga 2008ko azaroan sortutako txaranga bat da. Txarangaren sorreran garrantzia handia izan dute Joxean Malvido, Musika Eskolako tuba Pedro Migueliz, Kilikariak fanfarre ospetsuko kidea.

Los grupos citados anteriormente saldrán desde diferentes puntos del centro de la ciudad para confluír en Alderdi Eder.

Jammu es un ballet folklórico que nace en Dakar en el año 2008, dirigido por Ass Ndiaye. En él participan jóvenes músicos y bailarines de todas las etnias de Senegal -Wolof, Bambara, Peul, Toutcouleur, etc...- y en sus espectáculos nos presentan las danzas más tradicionales de este país.

Mac Jeara's Band es una formación guipuzcoana que desfilará por las calles de nuestra ciudad evocando los sonidos de las brass bands y las marching bands del Barrio Francés de Nueva Orleans.

The Joselontxo's Txaranga es una charanga formada en noviembre de 2008 en cuya creación han tenido una gran importancia el profesor de tuba de la Escuela de Música Joxean Malvido y Pedro Migueliz, miembro de la famosa fanfarre Kilikariak

IFK-CIF Q20005411
10131n | 2009-11



KONTZERTUA / CONCIERTO GERTRUDIS

Eguna: Abuztuak **14** larunbata
Ordua: 19:10
Boulevard

Día: **14** de agosto sábado
Hora: 19:10
Boulebarrean

Gertrudis taldea, reggae, latindar edo cumbia bezalako erritmoekin fusionatuz, Kataluniako rumban iraultza eragin duen talde gisa da ezaguna. Kataluniako rumba da haien oinarria, eta Pereten eta bereziki Gato Pérezen irakaspenak trebetasunez aplikatu dituzte. Espainian, Holandan, Belgikan eta Frantzia barrena 400 kontzertu baino gehiago egin dituzte. Kajoi flamenkoa, perkusio afrikarra, bateria... Katalanek erritmo itsaskor eta biziz janzten dute euren musika.

Publiko gazteenari rumba kutsatu izana egozten zaie. Izan ere, agertokietan duten esperientzia alde batera utzita, taldekideen batez besteko adina 25 urte da.

Belaunaldi berriko talde katalan ospetsuenetako izatera iritsi dira. Zuzeneko emanaldiak oso gustuko dituzte generoaren benetako zaleek eta baita oro har musika maite dutenek ere.

Xavi Ciurans kantariaren artea eta energia ezin hobeto bateratzen dira Acedoren biolin bihurriarekin, Xavi Freireren haizagailuekin eta Marc tumbao erritmoekin. Elkarrekin estilo bitxia sortu dute eta "Samarreta", "Almejilla", "El Meu Germà" edo "Ara Vic d'enlloc" bezalako arrakas dituzte.

A Gertrudis se le considera como el grupo que ha revolucionado la rumba catalana fusionándola con otros ritmos como el reggae, el latín o la cumbia. Han hecho de la rumba catalana su santo y seña, aplicándose con tino a las enseñanzas de Peret y sobre todo de Gato Pérez y han realizado más de 400 conciertos por España, Holanda, Bélgica y Francia. Cajón flamenco, percusión africana, batería... los catalanes visten su música con ritmos pegadizos y muy vivos .

Se les atribuye el hecho de haber contagiado de rumba al público más joven. Porque, dejando la experiencia en los escenarios a un lado, la edad de sus componentes es de una media de 25 años.

Han pasado a ser uno de los grupos catalanes de nueva generación más reputados. Sus directos gustan tanto a los amantes más genuinos del género como a los amantes de la música en general.

El savoir faire y la energía del cantante, Xavi Ciurans, combinan perfectamente con el violín endemoniado de Eduard Acedo, los ventiladores de Xavi Freire y los tumbaos de Marc Mas. Juntos crean un estilo peculiar, que ha dado éxitos como "Samarreta", "Oye", "Almejilla", "El Meu Germà" o "Ara Vic d'enlloc".

